

HIRUGARREN BLOKEA: KOMUNIKAZIOA GERRA HOTZAREN TESTUINGURUAN. IKUS-ENTZUNEZKO GIZARTEA

8. GAIA: MUNDU BIPOLARRA ETA TELEBISTAREN URREZKO AROA (1945-1989)

1. HEDABIDEAK MUNDU BIPOLARREAN

- XIX. mendeko liberalismo klasikoa “zuzentzeko” beharra. Ez da zilegi Hearst bezalako kazetari batek dirua duelako bere kazetaritzaren bitartez nahi duen guztia zabaltzea eta nahi duen eran. Erabateko askatasunak mugak izan behar ditu.
- Estatuaren/gobernuen **esku-hartze geroz eta handiagoa**. Herritarrak informatuta egotea beharrezkoa dela pentsatzen den neurrian, estatu askok (estatu demokratiko zein diktadorek) esku-hartze handiagoa izatea erabakitzen dute.
- Esku-hartzeak logika berri bati erantzuten dio (Naziek ere logika propioa zuten esku hartze hori justifikatzeko) **gobernu demokratikoen ardura** izango da hiritar guztiek informazio (zintzoa) eskuragarri izateko eskubidea bermatzea. Espainiak frankismoan nazismoari kopiatu, baina 1960 hamarkadatik aurrera AEBei.
- Aurrekoarekin lotuta, **hedabideei funtzio** berri bat exijituko zaie gizarte-zerbitzuaren funtzioa. Honela, gizarteari erarik egokienean zerbitzatu ahal izateko oinarritzakoa da adierazpen askatasuneko testuinguru bat bermatu ahal izatea.
- Herrialde Komunistetan (SESB eta Herri Demokrazietan) Alderdi Komunisten kontrol zuzena. Langileen mesederako prentsa forma.
- Nolabait bi sistema gailentzen dira: bloke komunistan komunikabideetako kontrol zuzena egongo da alderdi komunistaren partetik, herrialde demokratiko kapitalistetan, berriz, gerra arteko garaian hedatu ziren teknika sofistikuak (limurtze pertsuasio) garatuko dira. Eta herrialde kapitalistetan propaganda politikoa erabili gabe lortuko da kapitalismoa eta demokrazia uztartzea eta hau era natural gisa ikustea.
- Herrialde Kapitalista demokratikoetan (Estatu Batuak buru zirela) teknika sofistikuak eta oso eraginkorrak garatuko dira sistemaren onurez konbentzitzeko kapitalismoaren gizarte ereduaren

naturalizazioa lortuz → Bereziki entretenimenduaren industriaren bidez lortuko da.

- **Hutchins Batzordea** (1944ko otsailaren 28). Batzorde honek adierazpen askatasunarien inguruan txosten bat egin zuen
 - Estatu Batuetako prentsa askatasunaren inguruko ikerketa egiteko sortu zen.
 - Batzordearen arabera prentsa da gizarte garaikideetako errealitate konfiguratzailer nagusia. Gizarte garaikideetan, jendeak daukan mundu ikuskeraren arduraduna izango da prentsa.
 - Hiritarren gizarte gaiekiko ezagutza eta jakintza prentsaren (eta bere kalitatearen) menpe badago, kalitatezko prentsa aske baten presentzia bermatu eta babestu beharra dago.
 - Prentsaren askatasuna baino, informatzeko askatasunaren kontzeptua gailentzen da.
 - *Prentsa arduratsua eta askea* (1947).
- Batzorde honen ondorioetatik sortu zen **Prentsaren Gizarte Arduraren Teoria**. Estatu Batuetan gailendu zen teoria izan zen.
- Gerra iraunkorreko egoera hedabideetan. Norbera bere herrialdean saiatuko da modu batean edo bestean kapitalismoaren abantailak informatzen. Bi blokeen artean, nolabaiteko gerra komunikatiboa emango zen.
- Informazioaren logika bipolarra. Txosten honetan salatu egingo da logika bipolar hori komunikazioaren esparrua ere gauzatzen dela
- 1980. urtean **MacBride Txostena**: “Mundu bat eta ahots asko”. aurre egin nahi izan komunikazioaren eremuan inposatutako logika bipolarrari. Salatu egingo da logika bipolar hori komunikazioan ere gauzatzen dela, herrialde batzuk soilik daukatela informatzeko ahalmena.
 - Bloke kapitalistak munduko informazioaren zirkulazioa kontrolatzen du Kolonialismo informatiboa gauzatzen dute: Associated Press, United Press International, France Press (antzinako Havas) eta Reuters. Bloke kapitalista, kolonialismo informatiboa gehien edo era eraginkorrean gauzatzen duena da.

- Sobietarren TASS bloke komunistan bakarrik zen nagusi.
- Kultura bakar bat gailentzearen arriskuez ohartarazi zuten. Kultura anglosaxoia
- Informazioaren Nazioarteko Ordena Berria aldarrikatzen dute: zirkulazioan eta garapen/eskuragarritasun teknologikoan berdintasun irizpideek sustatu behar dira.

2. GERRA OSTEKO ESTATU BATUETAKO PANORAMA OROKORRA

Gerra hotzaren hasieran komunismoaren kontrako mugimenduak ikusiko ditugu McCarthysmoaren eskutik.

- Propagandaren gaitzespenaren aurrean teknika sofistikatuagoen, zeharkakoagoen garapena. ez zegoen ondo ikusita propagandaren ideia, horregatik, Ospe handia izango dute publizitate teknikak. Teknika sofistikatuagoak erabiliko dira, zeharkakoagoak izango dira, kapitalismoaren jomugak ezartzeko.
- Gerra-arteko limurtze tekniken garapena eman zen.
- Telebistaren eta publizitatearen hedapenari esker, mezuak egunerokotasunaren eremu intimoetara sartu ziren. Telebista da komunikabideetan “erregina”, gehien ikusiena eta jende gehien erakartzen zuena: Lehiaketa eta telesailak ziren programa ospetsuenak.
- Mugarik gabeko **kontsumoa**, **gizarte ordena** zehatza eta **demokrazia** uztarturik (gogoratu National Association of Manufacturers-en kanpaina) → ekuazio honen **naturalizazioa**.

2.1. ELEMENTU “SUBERTSIBOEN” KONTRAKO JAZARPENA ETA **SORGIN EHIZA**

- Sobietarren munduko langileen askapenaren aldeko adierazpenak ikaraz ikusi zituzten estatubatuar agintariak: gizarte-eredua arriskuan ikusten zuten. Komunismoaren mamuarekin bukatzeko, estatuaren defentsaren izenean, zergatik dago mamu horren beldurra? AEBn 30.hamarkadan mugimendu komunista oso indartsua zen, mugimendu ezkertiar asko zeuden eta oso indartsuak ziren, testuinguruak lagundu egingo die kontserbadoreei beren ideiak defendatzen (zeren benetan

badago “mamu” hori, komunismoak indar handia duelako eta beldurra dago ea AEB Sobietar eremuko beste lurralde bat bihurtuko den). Mugimendu komunisten eta sozialisten alde egingo du.

- Mehatxu komunista benetakoa eta gertukoa zela sentiarazteko beharra.
- C.P.U.S.A. alderdiak 1930eko hamarkadatik bizi zuen hazkundeari aurre egin behar zitzaion. gero eta afiliatu gehiago izan zituen urte batzuetan zehar, eta beldurra sortu zen (“mehatxu komunista”)
- “Disidente subertsiboak”, jazartzeko ardura hartzen du Estatuak, Estatuko erakunde nagusia: **Ekintza Anti-Estatubatuaren Batzordea** edo House Committee on Un-American Activities (**HUAC**) (1938-1975).
→ Bere jazarpenagatik oso famatua izan zen. 1975 urtera arte iraungo du baina bere momenturik potenteena McCarthismoaren garaia izango da.
- **Ekintza Anti-Estatubatuaren Batzordea** edo **HUAC** delakoaren aldirik bortitzena 1947-1956 aldia izan zen: **MAKARTISMOA**. Batzorde honen garairik garrantzitsuena izango da.
 - Joseph R. McCarthy senatari errepublikarra pertsonaia ospetsu eta hedabideetako profesionalen kontra tematu zen. Bera izan zen hori bultzatu zuenetako bat, jendea froga oso ahulekin eraman zuen epaitegietara, komunista zen edo ez epaitzeko.
 - HUAC delakoa (Comité de actividades antiestadounidenses/antiamericanas) administrazioko langileen kontra ere tematu zen. Baita hedabideen langileen aurka, uste baitzuten, hedabideek gizartearen pentsamenduan eragin zezaketela.
 - Askotan oinarri gabeko salakettak izan ziren.
- Herritarren artean existitzen zen paranoia antikomunista aprobetxatu eta puztu zuten.
- Inkisizio politikoa laster zabaldu zen gizartean eragin sakon eta eraginkorra zuen Hollywoodeko zinema industriaren kontra.
- Hollywoodeko Hamarren kasua (1947). Oso ezaguna da Holliwoodeko 10 profesionalen kontrako kasua:
 - Epaitegietara deituak izan ziren zinema munduko hamar profesionalak uko egin zioten Batzordearen galderei erantzuteari (konstituzioaren kontrakoak ikusten zituztelako). Komunistak direlako susmopean. Atxilotu egin zituzten eta

kartzeleratuak izan ziren legeari oztopoak jartzeagatik (galderak ez erantzuteagatik alegia)

- Idea oztopatzea eta Kongresuari men ez egiteagatik– eta **zinema** industriak sortu zuen **lehenengo zerrenda beltzean** sartu zituzten → **“Waldorf-eko Adierazpena”** (1947ko abenduak 3) honen ondorioz sortuko da *Hollywoodeko zerrenda beltza* deiturikoa; ez dituzte gehiago kontratatuko Batzordeari erantzun arte, hots, erakutsi arte ez direla komunistak.
- Garaiko prentsak **Hollywoodeko Hamarrak** izena eman zion gizon-talde honi.
- Makartismoaren kontra agertu ziren: Humphrey Bogart, Lauren Bacall, Gregory Peck, Katharine Hepburn, Kirk Douglas, Burt Lancaster, Gene Kelly, John Huston, Orson Welles, Thomas Mann, Frank Sinatra edota Edward R. Murrow (kazetaria). Holliwoodeko 10 horien defentsan agertuko dira pertsona hauek, ez bakarrik Holliwoodeko 10 horien defentsa baina hau os ezaguna edo entzutetsua egin zen.
- Teorian Estatuaren babeserako egiten ari ziren ekintzak, eskubide zibilen txikizio sistematiko bat baino ez ziren.
- **Lehenbiziko Zuzenketaren Batzordeak** Hollywoodeko Hamarren kontrako epaiketak salatu zituzten. Makartismoaren biktimekin elkartasuna adierazteko sortu zen taldea. Eskubide Zibilen kontrako ekintzak dira (eskubide askatasunaren alde), Estatuaren izenean egindko salaketa hauek.
- Laster elkartasun mugimendu guzti honetan paxrte hartu zutenen kontrako susmoak hedatu ziren.
- **Humphrey Bogart: “I’m No Communist”, *Photoplay* (1948)** Komunista delakoaren zurrumurrua zabaldu zen eta artikulu hau argitaratu zuen garbi gera zedin
- McCarthysmoaren jazarpen politikekin batera, zinema munduko fikziozko propaganda produkzioak sustatu ziren: komunismoaren kontrako ideiak zabalduko dituzte pelikula hauek
 - ***The Red Menace*** (R.G. Springsteen, 1949). Planeta gorritik datozen esktralurtarrak (sobietarrak) inbaditu egingo dituztela estatu batuarrak planteatzen du pelikula honek.
 - *The Red Danube* (George Sidney, 1949).
 - *I Married a Communist* (Robert Stevenson, 1949).

- *Guilty of Treason* (Felix E. Feist, 1950).
 - *I Was a Communist for the FBI* (Gordon Douglas, 1951).
 - *Big Jim McLain* (John Wayne 1952).
 - ***Red Planet Mars*** (Harry Horner, 1952).
 - *The War of the Words* (Byron Haskin, 1953).
 - *Invasion of the Body Snatchers* (Don Siegel, 1956)
- Izaki extra-lurtarren (bereziki Marte) inbasioetan oinarritutako zientzia fikziozko pelikulen garrantzia.
 - Jazarpen antikomunista leundu egin zen 1950eko hamarkada bukaeratik.
 - Makartismoa edo sorgin ehiza leuntzen lagundu zuten bi gertakari hauek:
 1. John H. Faulk-ek AWARE enpresari irabazi zion epaiketa (1962). Aurreko hau onpainia pribatu bat zen, eta hau bezalako enpresen zeregina zen pertsonaia jakinak ikertzea eta ezkertiarak ziren edo ez aztertzea.
 - Faulk, irratiko langilea eta "Telebistako Artisten Federazio Estatuatuarra" sindikatu ezkertiarreko buruzagia.
 - AWARE enpresa pribatuak ikerketa egin zion eta "ez gai" kategoria eman zion → CBS Radio-k kaleratu zuen.
 - Faulk-ek salaketa jarri zion AWARE enpresari, kasua irabazi zuen eta kalte ordainak ordaindu zizkioten.
 - Inflexio puntu bat izan zen makartismoari amaiera emate aldera.
 2. Beste inflexio puntu bat ere hau izan zen → Edward R. Murrow kazetariak **See It Now** saioan makartismoaren kontra egin zituen saioak eta adierazpenak («A report on senator Joseph R. McCarthy» 1954.eko martxoak 9). Adierazpen askatasuanren aldekoa ze Murrow

2.2. TELEBISTAREN ERREINALDIA

Berehala bihurtuko da telebista informatzeko iturri edo tresna gisa, telebista izango da erreferente nagusia infromatzeko eta entretenitzeko

- Bigarren Mundu Gerraren ondoren telebistaren erregealdia hasi zen.
- **Telebista** da masa komunikazioaren **bosgarren** (eta azkeneko) **belaubaldia**ren protagonista → XX. mende bukaeran Informazioaren Gizartearen etapa hasi zen, masa gizartearen eta masa komunikazioaren aldia atzean geratu zelarik.
- Aurretik sortua den arren, telebistaren hedapen masiboa XX. mende erdialdetik aurrera eman zen. telebista etxe guztietara sartzen hasten da garai honetan
- Telebistaren historiaren hasieran gailentzen diren edukiak notizien eremuetatik aldentzen dira.
- Ekitaldi handien zuzeneko emanaldiek joera honen aldaketa ekarri zuten: 1936ko Berlineko Joko Olinpikoen zuzeneko emanaldia, edota Pearl Harbour-en erasoaren inguruko emanaldi berriemailea 1941eko abenduaren 7an.
- Zinemako eta irratiko formula arrakastatsuak kopiatu ziren.
 - Adibide modura, Edward Murrow kazetariaren “Hear It Now” saio ospetsuak CBS Radio utzi eta, lan talde guztiarekin, kate bereko telebista-sailera pasatu zen.
- Entrenimenduzko edukiekin batera, historia garaikideko hainbat gertaera garrantzitsuren **memoria kolektiboa telebistak utzi dizkigun irudiekin lotuta** dugu. Horregatik deitzen zaio Gerra Hotzaz gain, (IKUS-ENTZUNEZKO GIZARTEA). Telebistarekin lotuta daude gure memoria historikoan gertatu diren hainbat gertakari politiko sozial... (telebistak emandako irudiei esker).
- 1950eko hamarkadatik hasi zen telebistaren hedapena eta 1960ko hamarkadarako mundu informatibo eta komunikatibo guztiaren erreferentziazko hedabidea (informazio zein entretenimendurako) bihurtu zen. Etxe bakoitzak telebista bat dauka, garai honetan komunikazioaren erreferente nagusia izango da.
- Komunikazio forma berri bat gailendu egin zen, eta honek gizartearen anatomian eragin zuzena izan zuen. Gizarte ohiturak aldatzen ditu,

etxera bueltatzen gara, egongelara eta komunikazioa era indibidualean jasotzeko era gailenduko da.

- *Mass mediaren* bidez zabaldu zen entretenimenduaren industria –telebistaren bidez eduki hauek eguneroko intimitatean sartzeko gai dira– erabakigarria izango da masa kontsumoan oinarritutako gizarte berriaren eraikitze prozesuan.
- Telebistako saio arrakastatsuenak **lehiaketak** eta fikziozko **telesailak** izan ziren. Gerra hotz guztian zehar arrakastatsuen telesaila aztertuko dugu.
 - **Lehiaketak:** *What's my name* (1950-1967), *I've got a secret* (1952–1967), *To tell the truth* (1956tik).
 - **Fikziozko telesailak:** *Faraway Hill* (1946), *Peyton Place* (1964-1969), ***Bewitched* (1964-1972)** edota 1980ko hamarkadako telesail arrakastatsuak: *Dallas*, *Dynasty*, *Santa Bárbara*, *Falcon Crest* (*)**Ronald Reagan garaiko iraultza kontserbadorearen logikan txertatzen diren narrazioak.**
 - **Variety Show:** *The Ed. Sullivan Show* (1951-1958)
 - **Magazinak:** *See It Now* (1948-1971), *The 60 Minutes* (1968tik).

Bewitched (1964-1972) “Embrujada”

Kontua da emakumeek 60. hamarkadarako jada bozka eskubidea eta etxetik kanpo zilegitasunez lan egitea lortu dute. Dena den, familia aurrera ateratzeko ardura ez zuten galdu. Beraz, kontraesankorra zen euren jarduera profesionalarekin; ezin ziren biak batera egin.

- Estatu Batuetako ABC kateak eskainitako telesail arrakastatsuenetakoa izan zen (herrialde honetako telebistaren historiako luzeena eta herrialde askotara esportatua), AEBko arrakastatsuen eta luzeena, esportatu egin zen eta esportatutako herrialdeetan ere arrakastatsuenak.
- Telesailaren ardatz narratiboak **Betty Friedanen** (Mugimendu Feministaren bigarren olatuaren pentsalari garrantzitsuenetakoa) planteamenduekin hitz egiten zuen.
 - *The Feminine Mystique* (1963) liburua “*La mística de la feminidad*” Espainiara 65an iritsi zen, oso goiz Espainiako frankismoan ginela jakinda. Bettyk planteatzen du

zoriontasun faltsu bat eraiki dutela (ezkondu eta familia bat osatzea) eta zoriontasuna familia hori zaintzean oinarrituko dela. Berak horrekin amaitu nahi du. Berak zioen zoriontasuna ahizpatasunak konponduko duela, arazoa emakume guztiok (ez da zure arazoa edo nirea, baizik eta emakume guztiona) daukagun arazo politikoa dela. Beraz erantzuna politikoa izan behar da, konponbidea ez da iritsiko medikuak errezetatutako pilulen bitartez

“Nola ez naiz zoriontsu izango, dena dut eta?”: lana, gizona, familia, dirua... izatez ondo bizi, baina zoriontsu ez.

Dena den, Betti Friedanen pentsaera zabaltzen da: *“zure zoriona ez dizute ekarriko antidepresiboek, zaintzara dedikatzen zara eta ez da norberaren arazoa bakarrik, emakume guztiena da”*.

- *“Television and the Feminine Mystique”* (TV-Guide 1964ko otsaila) artikulua: maitasunaren izenean, bereziki hedabideetatik, emakumeei “inposatzen” zitzaien bizitza hutsala salatzen zuen. Friedanek salatzen du feminitatearen mistika horren eraikitze prozesuan ze paper eduki duen telebistak eta publizitateak. Uste du, telebista lagungarri izan dela, hau da, fomentatu in duela (ez du telebistak sortu, telebistak lagundu du proiektu hori naturalizatzen). Bestalde, maitasunaren izenean, emakumeei bizitza hutsal bat inposatzen ari zaiela salatzen du. Emakumeek beraiekiko zaintzan eta maitasunean baino, bizitza kondenatu senarra eta seme-alaben ongi izatera.
- Klase ertaineko senar-emazte, itxuraz, “normal” bat da telesaileko protagonista.
- Samantha, emakumea, gizon “normal” batekin ezkontzen den sorgina da. Samantha, sorgina da baina ezkondu aurretik, bere botereei uko egiten die familia normal bat osatzeko, senarraz eta seme-alabez arduratzeko.
 - Zin egiten du emazte ideal bat izango dela, eta horretarako bere botereei uko egiten die. Oso garrantzitsua da planteamendu hau: Samanthak

- **MAITASUNAREN** izenean bere botereei (borondatez) UKO egiten die.
- Maitasunaren kontaketa hau garaiko hedabideek errepikatuko den gailu oso eraginkorra izango da gure gizarteko ordena familiarraren eta ezberdintasunean oinarritutako genero harremanak sendotzeko, mantentzeko eta naturalizatzeko). Maitasuna ulertzeko forma honek eragingo du nolabait emakume desberdinek pentsatzea egin nahi duten bateragarritasun hori bilatzen dutenean erru sentimendua izatea: “lanera joan nahi dut baina nola utziko dut alaba bakarrik”, feminismoak ezetz esaten du erru sentimendu hori proiektu politiko batetik datorrela.
- **Endorak** (Samantharen ama, hau ere sorgina da) ez die uko egiten bere botereei
 - Bere agerraldietan Friedanek (garaiko feministek) formulatutako adierazpenak erabiltzen zituen, bereziki bere alabaren zapalkuntza agerian jartzeko borondatez.
 - Endora 20-30. hamarkadako feminismoa eta 60ko hamarkadako feminismoaren genealogiak uztartzen dituen pertsonaia da
 - Emakumeen ibilbide historikoa eta konkistatutako eskubideak kontuan hartuta, ez du ulertzen nolatan Samanthak uko egiten dion bere askatasunari zaintzaren truke.

2.3. KAZETARITZA IDATZIA: MAGAZINEN HAZKUNDEA

- Gerraosteko prentsak bultzada berria biziko du, bereziki edukietan ematen diren berrikuntzei esker.
- Formatu eta edukien berrikuntzan erakargarritasuna bilatuko da. Bi garrantzitsuenak:
 - **New Journalism** (Tom Wolfe kazetariak definitu eta garatu zuen). Fikziozko historien baliabide estilistikoak kazetaritza narrazioetan erabiltzea kazetaritza tradizionalaren ohiturak, formak eta arau-objektibistak apurtuz (Truman Capote). Literaturaren teknika linguistikoak erabiltzen zituen albiste

informatiboak ematerako orduan. Horrek jendea zalantzakor jartzen zuen, zer den egia eta zer ez dudan jartzen zutelako sarritan.

- **Ikerketa-kazetaritza** hainbat egunkarik garatu zuten izaera propioa markatzeko borondatearekin. Kazetaritza ikerketa oso ezagunak dira Watergate kasua lehertarazi zutenak, edota *Boston Globe*-ko Spotlight taldeak egindakoa. Bere garaian Nellie Blyck hasi zuen ibilbidearen garapena izan zen ikerketa kazetaritza.
- **Magazinak**, sektore indartsua izango dira. AEBko kultura zabalduko duten aldizkariak dira.
 - Aniztasun izugarria garatu egin zen.
 - Magazin garrantzitsuenetako batzuk: *TIME*, *Newsweek*, *Sports Illustrated*, *National Geographic*, **PLAYBOY**, *Readers' Digest*, *Fortune*, *Business Week*.
 - Aldaera arrakastatsu bat telebistari dagozkion saioetan espezializatutako magazinak izan ziren. Adb. *TV Guide* (Garai horretan sortutako joera berri bat da eta telebistaren garapenarekin harremana izan zuen).

Hugh Hefner, Play Boy eta maskulinitate eredu berri baten eraikuntza

- Gizonei zuzendutako hilabetekaria.
- Hugh Hefner-ek sortu zuen Chicagon (Illinois) **1953. urtean**. Urtea gogoratzea garrantzitsua da izan ere garai honetan badagoelako konbikzio bat Estatu Batuar askoren artean: Homosexuala izatea komunista izatea bezain txarra da. Eta gizon batek ezkondu egin behar du.
- Ezaugarri nagusia: Emakume biluzien argazkiak eduki serioekin tartekatzen ditu: esparru publikoko pertsonaia garrantzitsuei egindako elkarrizketak (artistak, arkitektoak, ekonomistak, zinema zuzendariak, kirolariak, politikariak, nobelagileak, antzerkigile, erlijio munduko pertsonak, politikariak eta abar), arkitektura eta dekorazioari buruzko erreportaiak eta abar.
- Beatriz Preciado filosofoak esaten digun bezala, Hugh Hefnerrek maskulinitate eredu berri bat sortzen lagundu zuen:

- Gerraosteko maskulinitate eredugarria, langile zintzo eta senar onak (familia heterosexual bat osatzen zuenak) ordezkatzeko. Gizonek, maskulinitateari egozten zaizkion pribilegio guztiez gozatzeko, eredu jakin honi erantzun behar zioten. Gauza zehatzak egozten zitzaizkion gizonei: ad, familia aurrera ateratzeko soldata ona izatea. Ez zen edozein lanbide onesten, batzuk gaizki ikusiak zeuden eta beraz ez zen gizontasun eredu perfektuaren barruan sartuko.
 - Gizon ezkongabea, berez, ez dago maskulinitate eredugarriaren irudiaren barruan.
 - Bere aldizkariarekin, Hugh Hefner-ek lagundu zuen familia eredutik aldentzen zen maskulinitate eredu positibo eta erakargarri bat eraikitzen (susmagarria suertatzen ez zena): gizon gazte, hiritarra, **ezkongabea eta etxekoia** (II.M.Gren garaian arraroa zen hau, ez normala eta hortaz baztertua), **homosexualitatearen susmoa** uxatzeko emakume lirainekin harremantzen zen beti (Hugh Hefner bera ere sexismoaz baliatu zen bere imajina, beti, emakume-objektuez inguratuz).
 - Playboy-aren ideia, ez dago ezkontuta, ez du konpromisorik baina beti beti dago emakumez inguratuta. Don Juan latino baten antzeko zerbeit, soltero y sin compromiso pero todo el día ligando. Solo que Play Boy-ak prestigio gehio du, es un Don Juan Anglosajon, prestigio gehiago du Play Boy-ak Don Juanek baino.
- Homosexualitatearen susmoa uxatu beharra testuinguruarekin lotura zuzena du:
- McCarthy-ren elementu “subertsiboen” kontrako jarrera zorrotzak homosexualak ere izan zituen jomuga.
 - «Komunisten konspirazio» lanekin kolaboratzen zuen «homosexualitate klandestino» bat existitzen omen zen Estatu Batuetan.
 - Hainbat funtzionario kaleratuak izan ziren 1950. urtean eta 1954. urtean FBI-k talde homosexualetan infiltratu edota hauek zelatatu zituen (segurtasun arrazoiak argudiatuta). Kontuan izan, 1950.eko hamarkadan (gizarte-arauek bultzatuta) homosexual gehienak

“armairuan” zeudela: komunistek erraz asko zuten Estaturako lan egiten zuten homosexuali xantaia egitea informazio sekretuak lortzeko. (garaiko psikiatriaren arabera, gainera, borondate ahulagoko jendea ziren). Sorgin ehizaren barruan homosexualak ere egongo dira. Urte horietan, homosexualak armairuan bizi ziren, sekretuan eta agintariek sinisten zuten, homosexual haiek txantajeatzea erreza zela.

- 1953. urtean Dwight D. Eisenhower lehendakariak sinatutako aginte baten ondorioz ezarri zen gobernuak ezin ziola lanik eman homosexual bati (debeku honek 1975. urtera arte iraun zuen).
- Makartismoak, *pervert peril* ('arrisku perbertitua') edota *lavender scare* ('izu larrosa') zabaldu zuen.
 - Max Lerner kazetariak pertsekuzio honi publikoki kritika gogorak egin zizkion: *Washington Post* egunkariko “Washington Sex Story” izenburuko artikulua (1950.eko hamarkadan).

Ondorioztatzeko

- Familia eredu normatiboa naturalizatutik ateratzen zen edozein bizimodu susmagarri bihurtu zen (bereziki 50.hamarkadan) → Eredu honetatik ateratzen den edozein gauza komunismoa bezain inmoral ikusten zuten askok.
- Guzti hau kontuan hartuta (eta sexismoaz baliatu bazen ere) Hefnerrek eredu familiar klasikoari erantzuten ez zion gizon eredu normalizatzen lagundu zuen. Maskulinitatearen eredu malgutzen lagundu zuen, nahiz eta berez emakumeak objektu bezala erabiltzen zituen bere rebistetan.